

## OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAK 2024KO EKAINAREN 24AN EGINDAKO BILERAREN AKTA

2024ko ekainaren 24ko 9:30ean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseilua eratu da modu ez presentzialean. Bestalde, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontseilu honen ondorioetarako, ulertzen da akta honetan jasotako erabakiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren egoitza nagusian hartu direla (Araba 45, Vitoria-Gasteiz), hura baita erakundearen egoitza.

Aurrekoa ezarri ondoren, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kontseiluburuak deituta, honako kide hauek bildu dira: Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea, Osasun sailburua, kontseiluburua; **José Luis Quintas Díez**, Osasun sailburuordea, kontseiluburuordea; Nerea Urien Azpitarte, Administrazio eta Finantziario Sanitarioko sailburuordea.

Ezin etorria adierazi dute **Hernando Lacalle jaunak**, Eusko Jaurlaritzako Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordeak, eta **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jaunak**, Aurrekontu zuzendariariak.

Kontseiluburuak quorum nahikoa dagoela egiaztatu du, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak –Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituenak– eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoaren arabera, eta, horrenbestez, **bertaratuek osoko bilkura eratu dute**, kontseiluburuak deitutako bilkura egiteko eta aldez aurretik bidalita zegoen gai-zerrendako puntuak eztabaidatzeko. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutu Sozialen 8.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Administrazio Kontseilu honetara joan dira, kontseiluburuaren baimenarekin, ente publikoko zuzendari nagusia, María Rosa Pérez Esquerdo, eta aipatutako ente publikoko Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea, **Susana López Altuna** (idazkari gisa).

**GAI-ZERRENDA**

**LEHENENGOA.**– 2024ko ekainaren 17ko bilkurako akta irakurri eta onartzea, hala badagokio.

**ERABAKIA:**Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onartzen dute 2024ko ekainaren 17an egindako bileraren akta.

Eztabaidagai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat eman da, 2024ko ekainaren 24ko 9:38ean.



**Sin.- Susana López Altuna**  
Idazkaria



**Sin.- Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea**  
Kontseiluburua  
Osasun Sailburua  
O.E.